




Hoteletan igarotako gaualdiak berriro handitu dira

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko otsaila. Mila




Iturria: Eustat.

Otsailean 400.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren hotel establezimenduetan, eta kopuru hori ez zen inoiz lortu hilabete horretan serie historiko osoan. Zehazki, gaualdien kopurua %25,9 handitu zen urte arteko terminoetan, eta, beraz, igoerak etengabeak dira 2021aren hasieratik.

Industriako prezioek apaltzen jarraitzen dute

Industria prezioak EAEn

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

EAEko industriako prezioen aldakuntza tasa %8,4 izan zen otsailean, aurreko hilekoa baino bi puntu txikiagoa. Hala, hazkundera bi digituetatik behera jaitsi dira, eta 2021eko erdialdetik ez zen horrelakorik gertatu. Energia izan zen apaltze horren erantzule nagusia, urtarriko %11,8tik otsaileko %7,5era jaitsi baitzen.



Zerbitzuek gorakada nabarmenekin hasi dute urtea

Negoio zifra zerbitzuetan
Urte bakoitzeko urtarrila. Indizea




Iturria: INE.

2023. urtearen hasieran, zerbitzuen sektoreko negozio zifrak urtarri batean izan duen erregistrorik handiena eskuratu zuen. Maila errekor hori urte arteko %11,9ko tasari esker lortu zen. Orobat, enpleguari dagokionez ere hobekuntza nabaritu zen, %1,1eko hazkuntza izan baitzuen.

Industriak beste hazkunde bat izan du urtarrilean

Negoio zifra industrian
Urte bakoitzeko urtarrila. Indizea



Iturria: INE.

INEk berriki argitaratu dituen azken datuen arabera, **industriako negozio zifrak %12,1 egin zuen gora urtarrilean, aurreko urteko aldi beraren aldean**. Igoera horren ondorioz, aurtengo lehen hilabete honetako indizea izan zen urtarri batean inoiz lortu den handiena.